

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Esteban Arrieta Gallastegi

*Eskoriatza,
Gipuzkoa
(1924-2021)*

Aurkibidea



Biografia



Aita Gatzagako semea zen eta ama, berriz, Oñatikoa. Aitaren lana zela eta, Esteban Bergarako San Prudetzio auzoan jaio zen 1924an. Hala ere, 11 urte inguru zituenean, familia osoa Eskoriatzara joan zen bizitzera. Txirrindularitza eta dantza izan dira bere zaletasun handienak: 80 urtera arte ibili da bizikletan. 46 urtez TESA lantegian ibili zen. Buru argikoa, gai horietaz eta antzinako bizimoduaz, oro har, azalpen interesgarriak eman ditu.

Zintak

ESK-005

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2007-09-27
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber

ESK-014

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-12-20
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Anaia txirrindularia

- **Erref:** ESK-005/002
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:00:50. **Bukatu:** 00:03:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

Anaia zaharrenak 1935ean soldadu zegoela etxera itzuli eta Elgetako txirrindulari lasterketa irabazi zuen. Lasterketa hartan 30 duro irabazi zituen. Etxera pozik itzuli eta aitak errieta egin omen zion, txirrindularitza ez baitzuen

gustuko. 23 urte eta erdi pasa zituen etxera bueltatu gabe eta ondoren Frantzian basoan ibili zen lanean. "Desertorea" zen eta etxera bueltatzeko beldurrez egoten zen.

2. Txirrindulari lasterketetako epaile

- **Erref:** ESK-005/003
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:03:05. **Bukatu:** 00:04:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

Anaia gerra aurretik hasi zen txirrindularitzan eta Estebanen zaletasuna hortik etorri zen. Lasterketetako "juez-arbitroa" izan zen eta federazioan ere sartuta egon zen.

3. Eskoriatzako kirol-elkarteko kide

- **Erref:** ESK-005/004
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:04:07. **Bukatu:** 00:05:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta inguruetako txirrindulari lasterketak aipatzen ditu. "Sociedad deportiva Eskoriatza"-n sartua zegoen eta beraiek antolatzen zituzten lasterketak. Txirrindulariak kanpotik ekarriak izaten ziren.

4. Txirrindularitzako epailearen lana

- **Erref:** ESK-005/005
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:05:18. **Bukatu:** 00:07:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

Txirrindularitzako epailearen lana zein izaten zen azaltzen du. Eskoriatzako lasterketetan autoa herriko batek uzten zien eta medikua ere bere autoan joaten zen. Eskoriatza eta inguruko lasterketa garrantzitsuenak eta txirrindulariak aipatzen ditu: Matxain, Goenetxea aita, etab. Eskoriatzan eta Aretxabaletan bietan zegoen ekipoa.

5. Eskoriatzan Langarikak korritu zuenekoa

- **Erref:** ESK-005/006
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:07:22. **Bukatu:** 00:09:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

Eskoriatzan 500 pezeta ordainduta (ordurako asko) Langarikak korritu zueneko. Eibar eta Arrateko lasterketak aipatzen ditu.

6. Ezkondu ondoren bizikletara itzulera

- **Erref:** ESK-005/008
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:09:14. **Bukatu:** 00:12:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ezkondu ondoren seme-alabak izan eta emaztearekin, koinatarekin eta lagun batzuekin mendira joaten ziren egunpasa. Umeak koskortu zirenean denbora libre gehiago zuela-eta lasterketetako bizikleta erosi zuen. Urtean, 5.000 kilometro egiten zituen. Zaragozako lasterketa batera bi aldiz joan zen.

7. Lehenengo bizikleta kanbioduna 1935ean ikusia

- **Erref:** ESK-005/009
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:12:10. **Bukatu:** 00:14:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

Lehenengo bizikleta kanbioduna 1935ean Marino Altunari ikusita ezagutu zuen. Aurrekoak pik aldaturaz ibili behar izaten ziren eta plato bakarrekoak izaten ziren. Lasterketetako gurpilak egurrezkoak izaten ziren aluminiozkoak jartzen hasi ziren arte.

8. Zaragozara txirrindulari lasterketara

- **Erref:** ESK-005/010
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:14:15. **Bukatu:** 00:16:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

Zaragozara lehenengo aldiz joan zenean, lagun batekin autoan joan eta hurrengo egunean atera zen hango txirrindulari lasterketan. Ondo antolatutakoa izaten zen Zaragozako lasterketa; 136 kilometro egin zituen eta lehertuta bukatu zuen. Espainia osotik 600 lagun inguru elkartzen ziren lasterketa hori korritzeko.

9. Bizikletak alkilatu egiten ziren

- **Erref:** ESK-005/012
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:17:40. **Bukatu:** 00:19:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Eskoriatzan bizikleta erostea nobedade handia izaten zen Esteban gaztea zela. Askok alkilatu egiten zituzten Belokirenean lanera joateko eta baita arratsaldeetan buelta emateko ere.

10. 13 urterekin lantegira lanera

- **Erref:** ESK-005/013
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:19:17. **Bukatu:** 00:20:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak

Laburpena:

13 urterekin hasi zen lantegian lanean. Lehenengo soldata. Lagun bat eta biak 14 urte betetzear zituztela lantegitik bidali zituzten sindikatu kontu bategatik eta gero hartu zituzten berriz 14 bete zituztenean. Soldata amari ematen zioten.

11. Mojek alde egin arte komentua bizileku

- **Erref:** ESK-005/014
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:20:47. **Bukatu:** 00:23:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Komentuan bizi izan ziren eta mojek alde egin zutenean etxeak egin zituzten. Esteban jarri zuten errentak kobratzeko administratzaile eta hargatik etxea dohainik tokatu zitzairen. Gero bizilekuz aldatu ziren birritan, azkena kooperatiban egindako etxe batera.

12. Erromeria amaitzean neska-laguntzera

- **Erref:** ESK-005/017
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:25:32. **Bukatu:** 00:28:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Gaztetan dantza asko egin zuen. Musika banda eta soinu-joleak izaten ziren; erromeria bukatzean neska-laguntzera joaten ziren. Neska-laguntzera joan eta bati gertatutakoa kontatzen du.

13. Inguruko herrietako jaiak

- **Erref:** ESK-005/018
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:28:00. **Bukatu:** 00:29:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Erromeriak auzo guztietan izaten ziren; batzuk aipatzen ditu. Bandak jotzen ez zuenean, inguruko baserri bateko itsua joaten zen soinua jotzera. Eskoriatzan San Pedroak, Aretxabaletan Andra Mariak, Gatzagan Dorletako Ama Birjina eta beste zenbait jai ospatzen ziren eta Esteban denetara joaten zen dantza egitera.</p>

14. Konfesatzera joan arren beldurrik ez

- **Erref:** ESK-005/019
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:29:27. **Bukatu:** 00:30:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Sarri joan behar izaten zuten konfesatzera, baina damurik gabeko bekatuak izaten ziren eta berriz dantza lotua eta bestelakoak egiteko desiatzen egoten ziren.</p>

15. Soldadutzako pasadizoa

- **Erref:** ESK-005/020
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:30:22. **Bukatu:** 00:31:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutza gertatutako pasadizo bat kontatzen du.</p>

16. Dantza hobeto zeinek egin apustua

- **Erref:** ESK-005/021
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:31:50. **Bukatu:** 00:35:47

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Igandero joaten ziren erromeriara. Igurtziren bat egin ahal izateko ezkutuan ibili behar izaten zuten. Txirrindulari lasterketa bat ikustera joan eta gertatutako pasadizoa kontatzen du. Dantza soltean lagunarteko apustua egiten zuten, ea zeinek hobeto dantza egin.

17. Inguruko herrietako euskara

- **Erref:** ESK-005/022
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:35:47. **Bukatu:** 00:37:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Aita dantza soltean oso trebea zen. Leintz Gatzagakoa zen aita eta ama Oñatikoa. Oñatiko euskara ezberdina zen Eskoriatzakoarekin eta Gatzagakokoarekin alderatuta. Bergarakoa ere Eskoriatzakoarengandik ezberdina zen.

18. Lagunei hika, apaizei berorika

- **Erref:** ESK-005/023
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:37:36. **Bukatu:** 00:40:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Eskoriatzan bi lagunei bakarrik hitz egiten die zuka, gainontzekoei "hi" eta emakume denei zuka beti. Lagunartean eta auzoetan dena hika egiten zen eta etxean beti zuka. Seme-alaba gazteenei beti zuka egiten zitzairen. Apaizei berorika egiten zieten.</p>

19. Aita Kubako gerran soldadu

- **Erref:** ESK-005/024
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:40:30. **Bukatu:** 00:43:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » XIX. Mendea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Aita Kubako gerran ibili zen. Soldadu trajea 10 duro ordaindu behar izaten zuten; bigarren jantzialdirako beste hainbeste eta hirugarrengoa 90 pezeta. Ordurako diru asko zen, eta astoa saldu behar izan omen zuten hura ordaintzeko.</p>

20. "Txakur konbirau" izatea

- **Erref:** ESK-005/027
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:47:52. **Bukatu:** 00:48:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

Laburpena:

"Txakur konbirau" izatea zeri esaten zaion azaltzen du pasadizo baten bidez.

21. 46 urtez Tesa lantegian lanean

- **Erref:** ESK-005/028
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:48:34. **Bukatu:** 00:52:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

46 urte baino gehiago ibili zen Tesa lantegian lanean. Aurretik Aretxabaletako lantegi batean ibili zen, baina ez zuen gogoko eta utzi egin zuen. Laneko pasadizoak kontatzen ditu.

22. 100 egunez ikazkin, egunean zazpi pezeta irabaziz

- **Erref:** ESK-005/029
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:52:00. **Bukatu:** 00:57:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Lantegia utzi ondoren ikazkin lanetan ibili zen egunean zazpi pezeta irabaziz. 100 egun egin zituen egunero baba beltza janez. Laneko pasadizo bat kontatzen du. Tesa lantegian ibili zeneko kontuak eta lan-baldintzak.</p>

23. Aitaren ogibidea

- **Erref:** ESK-014/003
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:01:05. **Bukatu:** 00:02:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Aitak bidegintzan lan egiten zuen; haren ogibidearen inguruko azalpenak ematen ditu: "kamiñeroaren" lana nolakoa zen...

Transkripzioa

- Eta kamiñeruan lana ze izaten zan?
- E?
- Beran lana ze izaten zan?
- Kamiñeruek eukitten euen orduen, kamiñero bakotxak, bi, hiru... lau kilometro edo. Euren trozuek eukitten zittuen ta ha garbi eukittia izeten zan euren zera. Ta gero noixien behin juten zien harri-zabalketan ta ibiltten zienien brea botatzeko ta, ba, igual Plazentziara edo beste leku batzuetara. Ta gure aitta beti oiñez faten zan. Bizikletan ahalegin danak ein ikesteko, ta pentsau be ez, pentsau be ez ta pentsau be ez, ta sekula ez zan jarri bizikletan. Ta bizikletan jarri balitz, ba, asko hobeto fan leikien, ba, baiña ez auen gura. Beti oiñez.
- Toki guiztietara...
- Bai. Ta gero ondo auken [hak], kilometro bat auken... San Prudentzioko kruzien bizi gitzen, ezta, kamiñero-etxien. Kilometro bat Oñatira, beste kilometro bat Mondrau aldera ta beste kilometro bi Bergara aldera euen. Harek etxetik urten ezkerro [palarraz] ya bere trozuen auen. Etxetik urten ezkerro, ba, hori bentajioi baueken, iñora fan biherrik ez. Beste batzuk, ba, noberan trozora fateko, ba, kilometro bi, hiru edo bost ein biher. Ezta? Ta harek etxetik urten ezkerro, trozo barruen auen ta ondo auen.

24. Lan-munduaren egoera antzina

- **Erref:** ESK-014/005
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:02:55. **Bukatu:** 00:03:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Lehenago (aitaren garaian) lanik ez zegoen inguruan eta jende asko kanpora joan behar izaten zen lanera.</p>

Transkripzioa

- Hamendik orduen jentia kanpora juten zan lanera ta. Hamen lanik ez auen. Ta orduan, ba, oin andaluzak eta zamoranuek eta hona etorri dien moduen, ba, orduen hamenguek beste leku batera juten zien.
- Kamiñero lan eittera?
- Hemenguek juten zien beste leku batzuetara. Batzuk ikezgiñan ta, zerak,

pantanuek eitten ta, ba, ahal dan lekura.

25. Umetako oroitzapenak

- **Erref:** ESK-014/008
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:04:40. **Bukatu:** 00:07:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

San Prudentzion jaio eta 1935ean Eskoriatzara joan ziren bizi izatera. Eskola kontuak; eliza ondoan zuten auzo-eskola. Irakaslea nolakoa zen; zer ikasten zuten.

Transkripzioa

- Bueno, zu San Prudentzion jaixotakua eta lehelengo urtiak han ein zenduzen...
- Bai, hamar urte ta erdiaz etorri nitzen ni Eskoriatzara, hamaika urte kunplidu aurretik Eskoriatzara etorri nitzen. Eskoriatzara etorri gitzen el año... hogeta hamabostien, trenta y cinco. Gero treinta y seisien gerriek urten auen.
- Eta San Prudentzion jua ziñan eskolara?
- San Prudentzion, bai, bai, bai, San Prudentzion, honaxe etorri arte eskolara. Gero handik etorri nitzenien hona bilddurrez etorri nitzen ni. Gu, ba, baserriarrak ez, baiña "rural", ezta? Ta hona bilddurrez hamenguek asko gehixao jakingo dauela eskolie ta bilddurrez eskolara juteko.
- Eta San Prudentzioko eskolia zelakua zan edo nun zeuan?
- San Prudentzioko elix-onduen auen eskolie ta oin sozidadie [dao han], auzoko sozidadie eindda dauke. Soziedade edarra, e! Oso ona. Ta noixien behin juten naiz. Jun zan domekan be egon nitzen. Mezie entzun ta gero hango lagunakin hamarretakue ein ta musien ein edo...
- Zeozetxo...
- Ez gauen domekan musien ein ya jente geruao ta gutxiao... Zaharrak, badakitzu. Ni baiño zaharrauek eta, ba... Ez gauen musien ein, baiña hamarretakua ein gauen, ta...
- Ondo. Eta eskolia ze izaten zan neska ta mutillak batera?
- Bai, bai, bai, neska ta mutillak danak, San Prudentzion danak batera zan. Maistrie geuken, maistrie, ta gizona euken maistrue Bergaran.
- Eta maistria zelakua zan? Gogorra?
- Bueno, bai, belarrieskiñako batzuk eta emoten zittuen, baiña nik uste dot erakutsi ondo eitten auela, e? Guk, behintzat, nahikua ondo ikasi gauen, nahikua ondo. Nik eskolia gehixena, esateko, haintxe ikasi nauen. Gero hamen gerriek be urten auen ta... ba, San Prudentzion ikasi nauen nik eskolarik gehixena. Ta, bueno, nik "regla de tres"-ik eta holako puñetaik sekula ez dot ikesi, baiña problemak, lau operaziñoko problemak-eta eitten gustora ibiltten nitzen. Ona nitzen.
- Horretan, gaiñera, ona ziñan, ez?
- Bai, hortan bastante ona nitzen, bai. Dibujuen-ta oso txarra. Han ez geuen dibujorik-ta eitten sekula be, ta hamen eguenetan eitten zan dibujua, eguen atsaldien. Ba, katxondeo bat izeten zan, danak bata

bestiekin ta “Eeee” ta. Nik ez nakixen ezta... bueno! Erredondo bat eitten be ez nakixen.

- Ta maistria ze zan kanpokua edo bertakua?
- Bai, ez dakit nungue zan. Ez dakit nungue zan.
- Baiña euskalduna edo...?
- Guk erderaz eitten gauen ta ez dakit euskeraz akixen. Ez dot pentsetan euskeraz akixenik. Gero uste dot Vitorixan hil zala ta ondio urte asko ez da hil zala, e? [Basiliza] Navarro. Bai, ta gizona zan maistrue Bergarakua don Inazio Zabala. Ba, eukiko zittuen... ez dakit nik, dozenerdin bat ume edo eukiko zittuen harek andriak. Ta gehixenetan, parto gehixenetan, geure amak asistiduta [auen]. Geure amak asistiduta [auen] partuek eukitten zittuenien harek. Bai.

26. Auzo-eskola San Prudentzion

- **Erref:** ESK-014/009
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:07:55. **Bukatu:** 00:08:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskola kontuak; auzoko neska-mutilak ibiltzen ziren bertan.

Transkripzioa

- Esaten dozu eskolan erderaz egitten zenduela?

- Erderaz, bai.

- Bertako umiak izaten zian, San Prudentziokuak bakarrik?

- Bai, San Prudentziokuak. Baiña San Prudentzio, zuk kontu ataraizu ba, han behian kasik etzan iñor bizi, geu eta beste ferrobixuenak-eta, estaziñuan bizi zienak, eta beste bi ero hiru etxe. Beste etxe danak ba... jangoikuak dakixen lekutik etorten zien, e. Basarri... urrinddik, e! Bai, bai, bai. Han basarrixak daz, San Prudentzion, oso urriñ daz basarrixak.

27. Umetako kontuak; eskola garaia

- **Erref:** ESK-014/011
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:08:55. **Bukatu:** 00:09:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Umetako kontuak; jolasean non egiten zuten. Irakasleari errespetu handia zioten ume guztiek. Ez zuen zigorrik ezagutu euskaraz egiteagatik.

Transkripzioa

- Umetan-eta mendixan ibiltzen zinazien asko?

- Keba. Hantxe, eskola inguruan-ta. Maistrie errespeto kristona auken, e. Ta guk, e, bost ero xei jolasian ibilli. Eta "maistrie!" esan ezkeru, raa!, ezkutau eitten giñen danok. Bilurra, billurra geuken.

- Zigorrik ipintzen zotsuen euskeraz berba egitteagatik?
- Ez, ez, ez, ez. Erderaz, e, basarritarrak-eta, e, neuk be asko ez, baiña basarritarrak eta gutxiau; erderaz drinbili-dranbala eitten geuen gehixenok; eta gero abariakin monagillo-ta, monagillo bizi guztien.

28. Umetako jolasak

- **Erref:** ESK-014/012
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:09:55. **Bukatu:** 00:12:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak: sokasaltoan; tortoloska... Garizuma garaian, txirikilarekin jolasten zuten.

Transkripzioa

- Dana dala, jolas orduan eta zer jolas egitten zenduen?
- Ze jolas? Maistriakin berakin... bera gogorra zan sokasaltoka-ta, asko eraitten oskun, bai. Ta bera sokiai eraitten, ta soka fuertie-ta, fuerte! Deskuidau ezker jo orkatillan eta hankazgora be bai. Batzuk, e, gauza danetan moduen, batzuk abillidade gehitxua eukitten auen beste batzuk baiño; beste batzuk torpe samarrak eta... Ahal dana. Gero pelotan be eitten geuen puxkat, elixpeien pelotan be eitten geuen puxkat. Eta gero, intxorrak dazenien-eta, potxoloka esaten gutsen, intxaurrekin, zer bat eindda. Zerakin, e, tortoleska be eitten geuen.
- Tortoleska zerekin eitten zenduen?
- Tortoles "tabas" dia, ardixen, e, hankak... Tortolesak die ba... lau, bost, xei... alde...
- Eta mutillak be horretan?
- Bai, bai, ba. Neskak abillidade gehitxuau izeten auen, abillidade gehitxuau.
- Intxaurrek esan dozu, intxaur denporan intxaurrekin jolasten zenduen?
- Bai, bai, bai. Intxaurrekin.
- Egoten zan urte sasoi bakoitzian, esate baterako Garizuman...
- Garixuman txirikilletan eitten gauen.
- Eta zer jolas da hori?
- Holako, txirikillia esaten gauen, holako egur bat, puntak alde bixetatik eindda, eta gero mazeta bat egoten zan, da harekin bota ahal danik urriñen, eta gero bota biher izeten euen, holako zer bat, barruan sartzera; sartzen ez baeuen ba... Ez dakit. Ia ahaztuta dauket, e. Gero txirikillia ipiñi zoztxo baten gaiñien hola, ta mazetiekin jo, ta aidien bota. Ez dakit zela eitten geuen be...
- Zeuek eitten zenduezen makillak?
- Bai, bai.

29. Umetako oroitzapenak

- **Erref:** ESK-014/014
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:12:45. **Bukatu:** 00:14:50

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

San Prudentzio ingurua nolakoa zen azaltzen du: eliza; "kamiñero-etxia"; taberna; tren-geltokia. Umetan geltokira joateko joera izaten zuten. Baserrietako umeak urrutiago bizi ziren eta sarritan etxean lagundu behar izaten zuten, ondorioz gutxiagotan joaten ziren eskolara.

Transkripzioa

- Han San Prudentzio inguruan zeren etxia, eliza, eskolia... Zer zekazuen hor inguruan?

- Kamiñero-etxia, gero, zera, beste bat, e, tabernia euen, estankua eta tabernia: gure beziñuek zien hareik. Gero, e, oin Kruz Rojie dauena, hor auen zentrala, Union Cerrajerako zentral elektrikue, elektrizidadie. Han kanala-ta auen-ta. Han bizi zan matrimonio bat seme bategaz, da gero estaziñuan jefie-ta, guardagujia ta beste kaltzadoreen bat ero bizi zien; eta beste matrimonio bat be bai, guardafrenua-ero zeren bat. Gero Oñatiko trena zela etorten zan San Prudentzioraiñok, da San Prudentzion, e, berutza eta gorutza doiazenak. Bitorixara juteko, Maltzara juteko ero Donostiara juteko, Oñatitik San Prudentziora etortzen zien trenien, da han transbordue eiñ, ta... San Prudentzio inportantie da, e!

- Bergarak orduan, sasoi baten, lau estaziño zekazen, ezta?

- Bai, bai.

- Eta bat San Prudentzio zan.

- Bai.

- Orduan hor jende asko ibiliko zan, batera eta bestera...

- Bai. Jentie ibiltten zan.

- Eta zeuek kontakturik eukitzen zenduen, estaziñora joateko ohitturarik edo?

- Bai, bai. Estaziñuan-ta ibiltten gitzen gu. Klaro, han lagun-eta be bageuken-ta. Neska ta mutil, estaziño inguruen asko. Guk estaziñokuekin-ta asko tratetan geuen, zela guk basarrik ez gauken... Ortue-ta baauken, ortue-ta baauken aittak-eta. Baiña beste gehixenak basarritarrak. Horreatik izeten zan, e... Gu asko gehixau juten giñen eskolara; guk sekula ez geuen faltetan eskolara, eta basarritarrak ba askotan fallo ein biher izeten auen, behixek zaindu biher zittuela, ero hau ein biher dauela ero bestie ein biher dauela. Urriñ zela bizi zien, atxakixan bat izan ezkerro, etorri barik geratu-ta...

30. San Prudentzio ingurua

- **Erref:** ESK-014/016
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:15:55. **Bukatu:** 00:18:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>San Prudentzioko erreka ingurua (ikus mapan). Erreka aberatsa zen; arrantzan egiten zuten bertan. Igeri egiten ere han ikasi zuten. Guardia zibila eta mikeleteak ibiltzen ziren erreka zaintzen.</p>

Transkripzioa

- Eta hor inguruan erreka be badago, ez?
- Errekie? Errekie ona, aberatsa auen orduan. Peska asko egoten zan. San Prudentzion-ta, pesca asko egoten zan. Amorrañak eta barbuek eta loiñak, eta eskailluek be asko. Kangrejuek be bai... Oin bape ez dau: baiña orduen asko, asko, asko.
- Zeuek ohitturia eukitzen zenduen erreka joan eta...
- Bai, igeri be bai eitten geuen, igeri puxkat eitten geuen, bai.
- Bertan ikasi zenduen?
- Bai, bai, bai. Garbiketako be, ba igeri faten gitzenien, bestela dutxaik-eta ez auen-ta ba...
- Igerixan bertan, eta peskan eitten zenduen?
- Peskan? Bai, bai. Ni gaztie nitzen artien, baiña gustatzen jaten... bai, bai.
- Eta akordatzen jatzu zela egitten zenduen?
- Peskan? Peskan, e, botillekin be eitten gauen, eskailluek harrapatzeko botillekin. Botillak azen, e, batzuk behian ipurdixan hola gora zer bat eukitten auen, ezta? Eta ha apurtu erredondua, barruen ogixe ta kortxue ipiñi, ta eskailluek han sartzen zienien, gero urten ez auen itten. Ha erdixen zela egoten zan salidie, han inguruen ibiltten zien, baiña ez auen urteten. Ta botillara han sartzen zienien, gero ha atara, kurioso-kurioso, ta eskailluek harrapo, ta bai. Eskaillue asko egoten zan, ta harrapetan gittuen.
- Eta botilliaren sistema hori zer zan? Eskaillutarako bakarrik.
- Bai. Hari ipurdixa apurtu ezker, beste ezetarako ez euen balixo izeten, eta eskailluak harrapatzeko, hiru-lau botilla.
- Barbuak-eta zela harrapatzen zenduezen?
- Barbuek guk ez gittuen harrapetan, gu artien gaztie gitzen-ta, baiña baazen peskari oso onak, baazen, Barrenakuek-eta, Ubittakuek-eta, horreik peskari amorratuek zien-ta. Guardazibiliek ibiltten zien, mikeletiek be bai; peskan ikusi ezkerok, e...
- Orduan debekatuta zeuan, ala?
- Bai, bai, multie eukitten auen, ta jentie zain guardozibiliek datozen. Klaro, guardazibiliek orduen zela oiñez ibiltten zien, ba zain ipinita, guardazibilak etorri ezker, e, "Hi, bajatozak, bajatozak, guardazibilak jatozak!", eta gorde ein biher.

31. Umetan errekan arrantzan

- **Erref:** ESK-014/017
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:18:10. **Bukatu:** 00:20:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Karramarrotan nola egiten zuten azaltzen du; aingirak nola hartzen zituzten. Erreka aberatsa zen; Eibar eta Arrasate ingurutik ere jende asko gerturatzen

zen bertara arrantza egitera. Erreka zikintzen hasi zenean galdu zen arrantza guztia.

Transkripzioa

- Eta karramarrotan?
- Kangrejuek?
- Bai. Zelan harrapatzen zenduezen?
- Kangrejuek, e... Retelak esaten jakuen holako aro batzukin, zera, saratxo bat; eta ha ipini, eta han okela puxkat, usaiña botaten dauena-ero, puxkat usteldutakue, eta ha ipini, ta kangrejuek hara faten zien, ta atara-ta, hartu-ta, berriz... Angirak-eta asko azen, angirak; eta angirak harrapetan zittuen, e, kordela botata, gabien bota kordelak, punta batetik bestera, bestien ipini, da antzueluekin, hiru-lau antzuelo kordel bakotxari, da hurrengo goixien jua ta, angirak baldin badauke, etxera ekarteko.
- Eta angirak estimauak izaten zian?
- Bai, bai, bai. Angirak haundixak eoten zien! Gu Eskoritzara bizitten etorri gitzenien, gure aittak bezperan kordelak bota zittuen, da Eskoritzara etorri, ta Eskoritzan, e, kamiñeruek etorri zien gure muebliok ekarteko-ta, kamioi baten, eta amak angirak ipiñi zittuen Eskoritzan, lenengo merixendia angirak jan gittuen, jan zittuen... Neuk be jango neuen zeoze, baiña. Bezperan peskan eiñ-ta...
- Orduan erreka aberatsa.
- Oso aberatsa. Oso aberatsa. Eibartik-eta be bai etorten zien, e, horra San Prudentzio aldera-ta peskan eitten, e! Mondrauetik eta be bai asko. Eta, klaro, gero fabrikak hasi zienien, industrie hasi zanien, peskie orduen galdu zan. Loiñak-eta harrapetan zien, bueno! Loiñak eta asko, asko. Bandadak ibiltten zien holaxe bista-bista-bistan, bandadak ibiltten zien. Eta batzuk erremintak be baaukien, guk ez, baiña hola esparbela, raaa! Bota eta behera faten zan, gero zerakin tiretu eta harrapetan zittuen, loiñak-eta hola harrapetan zittuen.
- Zuek ohiturarik izaten zenduen agorrak egitteko, presa txiki batzuk?
- Bai, bai, bai. Presak eta errekan eitten gittuen, eitten gittuen. Ibiltten gitzen.

32. Perretxikotan mendian

- **Erref:** ESK-014/018
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:20:40. **Bukatu:** 00:21:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

Laburpena:

Perretxikotarako zaletasuna izan du beti; gehien hartzen zituen perretxikoak zeintzuk izaten ziren.

Transkripzioa

- Eta perretxikutarako afiziñorik?
- Bai, bai. Ni oin ez naz juten, baiña orduen perretxikutara afiziño haundixe geuken bai.
- Bertan inguruan, San Prudentzio inguruan?
- Bai, bertan inguruan. Eta ni Eskoritzara etorri ta gero be bai, perretxikutan asko eitten neuen, bai. Mutikotie, baiña ikesitta neuen, eta

perretxikutan eitten neuen, bai. Oin aspaldi hontan bapez, ez dot eitten, e.
- Eta zer hartzen zenduen?
- Gibelurdiñek eta korostei-perretxikuek eta honguak zien onenak. Eta gero saltsa-perretxikuek be egoten zien... Baiña gibelurdiñak eta gorostei-perretxikuek-eta neuri gehixen gustetan jatenak hareik dia. Zatittuta, tortillie eindda ipintten die, ezta? Baiña horreik die perretxikuok, e, osorik, berakatza eta gatza-ta ein, ta zartaiñien, gehixen holaxe gustetan jat neri.

33. Dotrinaren garrantzia

- **Erref:** ESK-014/027
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:38:35. **Bukatu:** 00:41:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Erlijio kontuak; dotrinaren garrantzia. Jaunartzearen inguruko azalpenak. San Prudentzioko auzo-eskola; urtean behin inspektorea joaten zitzaien; sariak banatzen zituzten.</p>

Transkripzioa

- Relijiño kontuak eta, dotriña eta. Hori guztiori imajinatzen dot San Prudentzion izango zala. Jaunartzia non ein zenduan?
- San Prudentzion, bai. Abariak emuten oskuen dotriñie, dotriñie sagraue zan orduan. Joe..., dotriñie, e, dotriñie ondo ikesi geuen guk orduan.
- Zenbat jaunartze egin zenduezen, bat ala bi?
- Nik... Uste dot bat hartu geuela, uste dot bat. Ez naz ondo akordetan, baiña. San Prudentzion zela hartu geuen komuniua akordetan naz ni.
- Bai?
- Eta konfirmaziñuaz be akordetan naz. Obispue etorri zan, Mateo Mujika izango zan, uste dot. Obispue etorri zan, ta... erdi billurrez, obispuekin, baakizu, erdi billurez zer esango ete oskun. Ta monagillo be ein bihar, ta... Baiña obispuekin, e, abadiekin letxe, ondo.
- Dotriña esaten dozu ondo ikasi bihar zala?
- Bueno, bueno! Dotriñie ondo ikesi geuen guk.
- Ondo jakiten ez bazan, kalabazak emuten zittuen, edo?
- Keba. Nik eskolan esamiñaik-eta sekula ez neban euki. Guk ez geuen sekula esamiñaik euki. Urtien behiñ-edo Bergaako aiutamentukuok-edo etorten zien, orduen preguntan bat edo bi eitten zittuen, ezta? Zeoze preguntatearren, baiña premixuek ekarten oskuen. Premixuek, paketetxon bat-edo, pastelak-edo, hau edo, bestie edo, ekarten oskuen. Premixuek! Joe... Orduen ez zan ezer eoten-ta... Aldamenien zela guk geuen estankue, estankue ta tabernie, han gailletak eta saltzen zittuen, gailleta paketiek, kostetan zien txakur haundi bat, hamar zentimo, pezetien hamar zentimo. Eta guk harei pastelak esaten gutsen. Honek "galletas maria", ez dakitzu, baiña mariak ez zien; horrek beste luzenkok zien; baiña txakur haundi bat kostetan zien, eta guk jaixetan eukitten geuen pagia txakur haundi bat. Domeketan txakur haundi bat, etxien emuten oskuen txakur haundi bana; neri ta arrebiai txakur haundi bana. Ta takarraran fan ta pastelak erosi. Pastelak.
- Gauza haundixa.

- Eta oin gaiñera esaten dou, ezta, e, "joe, hareik oinguen aldien onak zittuan ta". Oinguek hoviek izengo die seguru asko. Seguru asko bai, txarrauek ez die izango oinguek. Baiña orduen ez auen-ta!
- Orduan premixuak Bergarako aiuntamentutik.
- Premixuek ekarten oskuen, bai. Zer ez dakit. Gero kantau eitten gauen, maistriek kantu bat erakusten... Ahaztute daukat. Eta ni kantuek goguen eukitten-ta ona naz, e! Nik lengo bertso zarrak-eta asko dakit, baiña asko.

34. Erlijioaren eragina gizartean

- **Erref:** ESK-014/028
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:41:30. **Bukatu:** 00:42:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Dotrina garrantzitsua zen. Erlijioaren garrantzia; gizartean zuen eragina. Ohitura zaharrak.</p>

Transkripzioa

- Orduan dotriña jaunartzia eitteko derrior ondo jakin bihar?
- Dotriñie sagraua zan orduen. Dotriñie orduen, e, urtien behin, sekula elixara faten ez zienak be [baazen San Prudentzion be, baazen; jente ona zan, baiña elixara ez zienak faten baazen], ba urtien behin komuniue eitten auen hareik be. Komulgetara urtien behin, eta konfesetara be faten zien; konfesetara, ba, zelabait konfeseuko zien, baiña... Gero komuniue hartzeko, meza denporan ez, goixien goixauan, seiretan edo fan, ta... Gure anaia-ta monagillo zien-ta, bezperan etorri gurera-ta: "Hi, bihar goixien abadie esanda jak", eta fan ta komuniue emun, ta...
- Eta orduan komuniua-eta baraurik hartu bihar zan ala zela?
- Barurik, hoixe, barurik. Agiñekin ikutu ezkerro be pekatua, pekatua izeten zan, ta barurik, barurik fan bihar.
- Ura edan zeikien?
- Ez, ez, ez. Ezebez, Barurik. Barurik egon bihar.

35. Erlijioarekin zerikusia duten ohitura zaharrak

- **Erref:** ESK-014/029
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:42:40. **Bukatu:** 00:43:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Erlijioaren garrantzia; gizartean zuen eragina. Ohitura zaharrak; hileta-elizkizunak.</p>

Transkripzioa

Orduko gauzak ba, oin ikusten (d)ittugu guk, Eskoritzan bertan pasetan zan, ni Eskoritzara etorri ta gero, Eskoritzan be monagillo ibilli nitzen ni, ni bizi guztien monagillo ibilli naz, oindio be monagillo nabil-ta, bizi guztien. Eta Eskoritzan entierreak izeten zien beti hamarretan, goixeko hamarretan. Jentie fabriketatik urten eta entierroa. Eta mezak egoten zien, ba, bost edo sei meza, zazpi altara euazen-ta, batzuetan zazpi be bai, eta hareik mezie emun ta gero, hiru abarek meza nausixa emoten euen, entierroa. Baiña -oin ez jat ondo pentsetan, baiña orduen, e...-, mezia emuten auen abarieri sakristixara armozue eruten jakuen: meza txikiñak esaten jakonak emuten auenien, sakristixara, e, bandejiakin armozua. Kantsau ingo zien-ta! Lan asko eindda, barurik... Beste danak be bai, e, barurik, han dazenak... Baiña kostunbriek, orduen holaxe zien-ta...

36. Umetan eliz mutil

- **Erref:** ESK-014/030
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:43:45. **Bukatu:** 00:47:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Ume-umetatik meza-laguntzaile aritu zen elizan; egin behar izaten zituen lanak zeintzuk ziren azaltzen du. Elizakoak banatzera joaten ziren; urtean behin, abadea baserriz baserri joaten zen soroak bedekatzen.

Transkripzioa

- Monagillo lanekin San Prudentzion bertan hasi ziñan?
- Bai, hoixe. Ni fango nitzen monagillo, nik uste dot xei urteazero hasiko nitzela.
- Eta zela hasi ziñan, zein bittartez edo?
- Zela? Bai ba, kalekuek izen-ta, mutikuek, e, han inguruen bizi zien mutikuek danak, asko ez gitzen-ta; gu be bai, eta han tabernakuek be bai, eta gero Elormendiko nire lagunak, oin be lagun intimue dot, Dionixio-ta, eta gu monagillo. Gure anaiek be, anai zarren bixek be monagilluek izan zien. Gero.... Hareik urteteko desietan-ta, gu barrura.
- Eta orduan monagillo lana zer izeten zan, zer egiten zenden zuek?
- Mezie emuten lagundu-ta; gero baten bat, e, gaixoik dauenien elixakuek emon biha jakonien-ta, oin ezta hainbeste usetan, baiña orduan, goixien illunetan, igual kilometro bira San Prudentziotik. Atzenengo baserria dao San Prudentziotik kilometro bi ta erdira-ero; kamiño, e. Bentan akordetan naz, ni be birritan fanda nenguen, da nire anaiek eta sarrixau, gizona be txarto, txarto, zaharra... Eta harei komuniue eruten. Abaria-ta goixeko xeiretan-ero, e! Eta kanpanillia, talan!, talan!, jo-ta... Birian baten bat jo ezkerre belauniko jarri biher. Belauniko, han pasetan zienak, ba, belauniko jarri, eta talan!, talan! "Han, elixakuak". Holaxe izeten zan.
- Zuk txiliña jotzen...
- Bai, bai. Abarie faten zan kopoiekin komuniue emuteko. Lelengo kostunbriek holaxe zien.
- Eta hori zela izaten zan, beti goizian? Goizian goiz?
- Bai, bai. Goixien xeiretan-ero, goixien illunez.

- Eta zeurekin batera besten bat joaten zan prozesiñuan-edo?
 - Ez, ez. Gehixenien bakarrik. Bai.
 - Gaixorik zegoenaren habitaziñora?
 - Bai. Konfesau eta komuniue emun-ta itte utsen-ta. Gero urtien behiñ terrenuek bedeinkaketan faten zan abarie. Baserririk baserri, monagilluekin. Eta lelengo abare zaharra auenien, batzuetan oillaskue emuten utsen, da beste batzutan arrautzak, beste batzutan txorixuak... Bedeinkatu-ta... Zestuekin, e, asko batzen zittuen, e! Eta monagillueri, abariak, lenagoko abare zarrak, hirutik bat monagillueri emuten utsen; oseake asko. Asko, asko; hirutik bat monagilluei. Gero abare barrixa etorri zanien, gaztie, ha hil zan, ta gaztie etorri zanien, ba..., harek puxkat kanbixau auen, harek, e, propiñie emuten auen, baiña hirutik bat-eta ez. Baiña abariek-eta asko batzen auen. Gero, e, orduan txarrixek zela hiltten zien baserri danetan, geurien be bai, kamiñero-etxie izan arren, aittak urtero-urtero txarrixa hazten auen, txarri haundixa, e! Afana eukitten auen txarri haundixa hazteko. Txarrixa hil, eta gero ba erregaluek, batai eta bestiai, ta... Eren auzo danekuei ez, baiña han ingurukuei, danei. Abariei baserri danetatik erregaluak. Asike... Odolostiek-eta abariek sobra eukitten zittuen. Solomue-ta... Abariei onak eruen bihar ba...

37. Bedeinkazioak; baserri-giroa

- **Erref:** ESK-014/031
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:47:25. **Bukatu:** 00:49:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Soro-bedeinkatzea noiz izaten zen; gai honen inguruko azalpen interesgarriak ematen ditu. Inguruko baserritarrek esnea beraien etxean uzten zuten esnedunak jaso zezan.

Transkripzioa

- Soluen bedeinkaziño hori noiz izaten zan?
 - Ez dakit ze epokatan izeten zan. Ez dakit, ez naiz akordetan.
 - Udabarrixan-edo?
 - Udan izengo zan. Neguan ez zoiazan abadiak soluek bedeinketan.
 - Baserri bakoitzera?
 - Baserri bakoitzera. Baserri danak pasetan zien. Eta basarrixak han urrin daz, e! Batzuk alde batera urrin, eta bestiak betekaldera be bai urrin... Baiña egun bixan edo hiruan danak pasau-ta...
 - Auzuetara eta baserrixetara beti oiñez?
 - Biheko, besteik ez auen-ta. Biheko oiñez, orduen ez auen...
 - Toki batzutan medikua-ta ibiltzen zan zaldixan ...
 - Bai, bai, bai. Eskoritzako medikuek be zaldixa baauken. Baiña bestela oiñez. Mondrauetik-eta baserrin batera karnazeruek-eta errekauren bat bialdu biher ebenien, e, orduen ez auen telefonoik eta puñetaik, eta "ekarri deixela, txahala ekarri deixela..." Beti geure etxien abixue ixten euen, ta gure aittak-edo gure anai zaharren batek kasakristora; hara fan, ta "bixar goixien erueteko, zera". Gauzak holaxe zien. Ta basarritarrak esnia hiru-lau lekutatik behintzet ekarten euen geure etxera esnia; eta hurrengo

goixien pasetan zan, Angiozarko letxerue esaten jakon, goixien, goixeko seiretan-edo aittak ataraten utsen esnia hari.

- Gera harek repartitzen zittuen...
- Gero Mondrauera erueten zittuen, nik gero Mondrauen ze eitten euen ez dakit. Baiña baserrittarrak beti be, ba, ekarten oskuen zeoze, basarriko ogixa, basarriko opilla-edo; edo labe-sue eitten euenien sagar erriak-eta. Ni akordetan naiz zela ekarten zittuen.

38. Elizakoak banatzen abadearekin

- **Erref:** ESK-014/033
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:50:10. **Bukatu:** 00:51:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Abadearekin batera elizakoak banatzera nola joaten zen kontatzen du.</p>

Transkripzioa

- Elizakoak esan dozu gaixorik zegoenaren habitaziñora joaten ziñaziela, ezta? Orduan ohitturia izaten zan beste baserrixetatik be hara joatia?

- Ez, ez dot uste, ez. Eta lehen nik esan dotsuten baserrixa... Kilometro bi t'erdi, kilometro bi pasau daz hara, elixakuekin neu fanda nauela esanda nau, soluek bedekaketan fan zanien izengo zan lelengo aldiz, zerbezie hantxe probau neuen nik lelengo aldiz. Zerbezie atara otsien, ta nik sagardaua zalakota rauu! Trague, ta ez jaten gustau. Ez jaten gustau. Dios, kriston sorpresie eruen nauen.

- Zer zan, bertan egindakua, ala zer?

- Ez dakit, ez dakit. Zerbezia orduan rarue izeten zan, baiña han baserrixan baaukien. Ta abariai ba atara ein biher zerbezia.

39. Abadeari berorika

- **Erref:** ESK-014/034
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:51:20. **Bukatu:** 00:51:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:

<p>Abadeari berorika egiten zitzaion.</p>

Transkripzioa

- Orduan zela tratatzen jakuen abadiet? Berori-edo egitten jakuen?
- Berori, berori betik, bai, bai, bai. Berori. Joe, abariai berori.
- Zuk monagillo moduan berori...
- Bai, bai, bai. Eta zaharrak be bai. Berori abariai. Gaztie izan arren, gaztie igual baiña, berori. Holaxe zien gauzak-eta.

40. Eskoriatza bere gaztaroan

- **Erref:** ESK-014/037
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:54:00. **Bukatu:** 00:56:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Eskoriatza nolakoa zen bere haurtzaroan. Eskoriatzako kaleak; kale-baserriak. Umetako kontuak; okerkeriak. 1935ean frontoia egiten hasi ziren.

Transkripzioa

- Zelakua zan orduan Eskoriatza?
- Eskoriatza? Bueno, orduan ezebe ez auen ta. Hemen, e, Erdiko Kalia, Beheko Kalia eta Goiko Kalia. Eta gero horri San Juan kalia esaten jakon. Hortxe dirijiduten zan dana. Eta gero ezautu danak itten zien, e, ba Dinotxuenak, ero Baldasarrenak, ero Enekotegixenak...
- Danak ezaunak, ez?
- Bai, danak, danak. Danak ezaunak.
- Eta kale horietaz aparte, beste guztia zer ziren, soluak?
- Bai. Kalien be baazen ganauek aukenak-eta.
- Kale-baserriak?
- Bai. Inotxuenien be eukiko auen, eta Baldasarrenien be bai. Da nire andrien etxekuek be behixek euki zituen. Harek Ubidetik etorritakuek zien, baiña behixak, eztakitt bat ala bi eukitten zittuen, baiña behixak eukitten zittuena badakitt seguru.
- Orduan herrixa txikixa izango zan, ez?
- Bueno. Nik eztakitt zenbat habitante eukiko zittuen baiña. Eztakitt. Akaso bi milla eukiko zittuen, baiña gutxi. Auzuetakuekin eta danakin, e. Kalien danok giñen ezaunak.
- Umiak-eta kalia danok alkarrekin ibiltzen ziñaten ala auzo diferentetakuak...
- Ez, ez. Danok alkarrekin.
- Eukitzen ziñuen burrukarik-edo zeuen artian?
- Bai, bai. burrukan be eitten gauen beti be-ta.
- Goiko kalekuak...
- Bai. Batzutan harrika be bai, eta gero hurrengo egunien eskolara fan ta lagunek, baiña... Bai, pasetan zan, bai.
- Hemengo jolaslekua zein izaten zen orduan?
- Bueno. Plazan-ta, orduen frontoia, e, ez auen, oin dagon frontoi hori ez auen. Horma, pareta bakarra auken hemendikaldien; zabala zan. Eta gero han arbola azen haundixak, gaztaiña zoruek, "castañas pilongas" ero. Eta jolasien han ibilttten gitzen. Eta gero, gu etorri giñen urtien, al año

treintaycinco, frontoie itten hasi zien, eta al año treintayseis frontoia akabau, San Pedrotan inagurauko zan, eta juliuen gerria urten auen.

41. Herriaren bilakaera

- **Erref:** ESK-014/039
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:56:35. **Bukatu:** 00:57:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Eskoriatza noiz hasi zen hasten; nola. Langileak kanpotik etortzen hasi zirenean, kasu askotan Gatzagan hartzen zuten etxea.

Transkripzioa

- Etxiak be hasiko zien egitten?
- Bai. Etxiek eitten hastia kosta jakon, baiña... Gu geu bizi gan etxiek, Dorleta, Dorletako auzua, uste dot hogeta hemeretzi urte daukela.
- Eta ohitturia izaten zan etxe berdin baten pare bat familixa bizi izatia, ero?
- Ez. Hori pasau zan gero. Kanpotarrak, e, hemen industrie hasi zanién kanpotarrak etorten hasi zienien-ta, orduen bai, pisu bat topau ezkerok ba familixa bi ero hiru igual, ta ahal dan moduan. Baiña bestela aurretik ez. Gero pasau zan, langilliak kanpotik etorri zienak, Zamoratik-eta, askok lelengo entradie Gatzagan eitten euen, Gatzagan etxiek hutsik azen ba, eta gero, apur bat konsegiduten euenien ba Eskoritzara saltua; Eskoritzara, Atxabaletara be bai, Mondrauera be bai... Ta bestela ba, Gatzagatik-eta bizikletan fabrikara, Atxabaletara-eta bizikletan.

42. Umetako gogoetak

- **Erref:** ESK-014/040
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:57:50. **Bukatu:** 00:59:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Eskoritzara bizi izatera etorri zeneko zenbait kontu; lagun giroa. Eskola non zegoen; irakaslea.

Transkripzioa

- Esaten dozu treintaycinkuan etorri zinatela Eskoritzara. Lagunak segiduan egin zenduzen?
- Bai, bai, laster ein nittuen lagunak, bai.
- Erreza zan?
- Lelenguen erdi billurrez etorri nitzen. Kalien..., gu kalien bizi barik

gengozen, ta... Hemengo mutikoek asko be gehixau jakingo dabela-ta pentsetan neuen. Da gero ikusi neuen, ba, neure antzera. Hortxe, dibujuan-ta manejetan nitzen gaixki. Gaixki ez, bapez.

- Eskolia nun zeuan orduan?

- Hementxe, plazan, hor etxiok eitten badabiz ba... Hortxe plaza pare-
parian bertan. Hortxe azen, neskak eta mutillak. Eskillarrak alde banatatik,
neskak eta mutillak.

- Aparte, ezta?

- Bai, bai.

- Hemen maixua eukiko zenduen, ez.

- Maixua. Gero azken aldera emakumie euki geuen, Celia, majia, oso
guapie zan. Bixetan emakumiek, geurien be bai eta bestien be bai. Eta
gero ha ezkondu zan Eibarrera. Hil zan. Oso guapie zan. Ordurako fijetan
gitzen gu.

43. Eskola garaia

- **Erref:** ESK-014/042
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:59:25. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Eskolan zer ikasten zuten. Umetako kontuak; familia giroa. 13 urterekin lanean hasi zen; orduko oroitzapenak. Barkileroa Eskoriatzara noiz etortzen zen; zer saltzen zuen.

Transkripzioa

- Zela gogoratzen dittuzu eskola kontuak? Asko ikasi zenduen ala zer ikasi zenduen?

- Nik, e, "las cuatro reglas", "las cuatro reglas" bastante ondo, eta gero honek problemak "de cuatro operaciones"-ta. Hortantxe bastante ona nitzen.

- Mapak eta eukitzen zenduezen?

- Euki bai, baiña nik, e, gutxi, gutxi. Guk han ez geuen mapaik eukitten, eta gutxi.

- Inspekziñoik, inspektoreren bat pasatzen zan lantzian behin?

- Ka, ez dot pentsetan, ez dakit. Ahaztuta eukiko dot igual-edo. Baiña ez dot pentsetan inspekziñoik-eta. Keba, keba. Eta esamiñaik-eta ez dot pentsetan sekula ein geuenik.

- Eskola-egunak zeintzuk izaten ziran. Zapatu goizien be joaten ziñazien?

- Zapatu atsaldia jai uste dot, eguen atsaldia jai. Baiña eguenien izeten zan, e, dibujo. Katxondeo bat izeten zan. "Hi, etorri hona! Etorri hona!" Dibujuo izeten zan... Ni ardi galduen moduen ibiltzen nitzen lelengotan. Gero, gero... akostunbrau nitzen.

- Eskolatik urten eta jolastu non egitten zenduen?

- Jolasian? Lelengo etxera merixendie hartzen. Guk,e, arrebiak eta nik, arrebia urte bi zarraua zan, merixendie preparaute eukitten euen. Orduen txokolatie, ontzak izeten zien, eta ontza erdi, kutxilluaz ebaitta, e, eta ontza erdi eta ogi zatixe. Domeketan ontza bat. Hori matematiko. Eta

domeketan, ba, txakur haundixe propiñie eukitten gauen. Eta gero hamahiru urtegaz fabrikan (s)artu nitzan, ta ba dirue apurtxo bat gehitxuau, apurtxu bat gehitxuau barkilluek-eta erosteko, orduen barkilleruek eta egoten zien-eta.

- Barkillerua bertakua zan ala etorri egitten zan?

- Bertakue... Kanpotik be etorten zien, bai, Mondreuetik etorten zan, bai, Gutierrez, bai.

- Eta zelan?

- Potiekin. Txakur haundixa bota, ta ra-ra!! Bota-ta, premixoik haundixena treinta izeten zan, ta zero be bai, ta "cinco, seis", ta... "Treinta!", ta, io! Barkillo pillue! Eta egoten zien erredonduak, hostixek esaten utsen, eta bestie, e... barquillos, hostias... bestiek ez dakit zela esaten utsen. Bestiek edarrak izaten zien, e. Hemengo barkillerue oso ona zan, oso onak eitten euen, eztixa erdixen ipiñittta-ta, oso barkillero ona zan. Baiña haik, e, gutxi jaten gittuen guk. Guk hostias, hostiak esaten gotsien.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-26

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com